## Derioko Udala

IRAGARKIA

2011ko martxoaren 31n Osoko Bilkurak egin duen ohiko ekitaldian, Derioko Udal Kultur Birikako Araudia hasien onartu du.

Espedientea jende aurrean izan da 30 eguneko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2011ko maiatzak 6, 86 zbk.) argitaratuz.

Epe horretan alegaziorik, erreklamaziorik edo iradokizunik ez izanik, behin-behineko erabakia behin betiko onartu da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoari jarraituz. Beraz, Araudiaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

Derion, 2011ko ekainaren 13an.—Alkatea, Lander Aiarza Zallo

KULTUR BIRIKAREN ARAUDIA (KB)

### Atarikoa

Herritarrek hainbat alditan egindako eskariari erantzuteko sortu da Kultur Birika (aurrerantzean KB); izan ere, haiek dira gure udalerriaren aberastasuna posible egiten dutenak.

Azken helburua da kultura azpiegitura honek zerbitzu eta programak eskaintzea, Derioko herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko eta herritarren kultura ekimenak gauzatze aldera eskuragarri dauden baliabide guztiak faboratzeko.

Etorkizuneko erronka gisa, kalitatezko kultura proiektu integratzailea sustatu nahi dugu, udalerri osoaren koordinazio eta lankidetzaren bidez. Horrela, kultura-nortasun berezi eta lotua lortuko dugu, Derioko biztanle guztiek horrekin bat egiteko.

### Helburua eta aplikazio eremua

— *Helburua:* KBko instalazioak erabiltzeari dagokionez, erabiltzaileek izango dituzten eskubideak, betekizunak eta baldintzak zehaztea.

— *Aplikazio eremua:* Araudi hau KBren gunean ezarriko da.

### Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

Denon intereserako ekintzak gauzatzeko, KBn eskaintzen diren zerbitzuak edozein erakunde, elkarte, enpresa, entitate edo pertsona fisikok erabili ahal izango ditu, betiere araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta ez badaude legezko kausan sartuta edo lokal hauetara sartzea debekatzen dien zigorra bete behar ez badute.

*Eskubide orokorrak:*

1. Zerbitzu bat jasotzeko ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu badute, zerbitzu hori jasotzeko eskubidea dute, jarduera programan zehaztutako baldintzetan edo KBren erabilera baldintza zehatzetan.

2. KBko langileekin hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute.

3. KBn haiei buruz dituzten datuak ikusi, zuzendu eta ezeztatzeko eskubidea izango dute erabiltzaileek, Datuak Babesteko Lege Organikoak ezarritakoari jarraituz.

4. Helburu horretarako jarriko diren erreklamazio-orriak erabiltzeko eskubidea izango dute.

*Betebehar orokorrak:*

1. Instalazio, ekipamendu, material eta altzariak egokiro eta behar bezala zaintzea, horiei dagozkien helburu eta erabilerekin bat eginda, horiei matxurarik edo kalterik egin gabe, ez eta beste erabiltzaileen osasunari edo eskubideei ere.

## Ayuntamiento de Derio

ANUNCIO

El Ayuntamiento en Pleno en sesión ordinaria celebrada el día 31 de marzo de 2011, ha aprobado inicialmente el Reglamento de la Kultur-Birika de Derio.

El expediente ha estado expuesto al público durante el plazo de 30 días, mediante la publicación de un anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 86, de 6 de mayo de 2011.

Considerando que en dicho plazo no se ha presentado ninguna alegación, reclamación o sugerencia, el acuerdo de aprobación inicial queda automáticamente elevado a definitivo, de conformidad con lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, procediéndose a publicar el texto íntegro del Reglamento en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Derio, a 13 de junio de 2011.—El Alcalde, Lander Aiarza Zallo

REGLAMENTO DE LA KULTUR BIRIKA (K.B.)

### Preámbulo

La K.B. es la respuesta a la demanda de los vecinos/as que son las que hacen posible la riqueza cultural de nuestro municipio.

Como fin último esta infraestructura cultural proporcionará una oferta de servicios y programas para favorecer la calidad de vida de la ciudadanía, así como la de facilitar todos los recursos disponibles para hacer posible las iniciativas culturales de las personas de Derio.

Como reto de futuro queremos promover una proyecto cultural integrador y de calidad, mediante la coordinación y cooperación de todo el municipio, para lograr una identidad cultural singular y cohesionada con la que nos identifiquemos todos los vecinos y vecinas de Derio.

### Objeto y ámbito de aplicación

— *Objeto:* Regular los derechos, obligaciones y condiciones en las que las personas usuarias pueden utilizar las dependencias de la K.B.

— *Ámbito de aplicación:* El presente reglamento se circunscribe al espacio de la K.B..

### Derechos y obligaciones personas usuarias

Podrán hacer uso de los servicios que se ofertan en la K.B. para la realización de actividades de interés general, cualquier institución, asociación, empresa, entidad o persona física que cumplan con los requisitos establecidos en el presente Reglamento y no se encuentren incursos en causa legal alguna o deban cumplir una sanción que les imposibilite e impida el acceso a los locales.

*Derechos generales:*

1. Recibir el servicio por el cual hayan realizado el pago del precio público o tasa establecida acordada o en las condiciones particulares de uso de la K.B.

2. Hacer uso de cualquiera de las lenguas oficiales con el personal de la K.B.

3. Acceder, modificar y cancelar los datos de carácter personal que disponga la K.B., según la LPD.

4. Hacer uso de las hojas de reclamaciones que a tal fin estará a su disposición.

*Obligaciones generales:*

1. Utilizar las instalaciones, equipamiento, material y mobiliario adecuadamente y conforme con el fin y uso que le son propios, evitando posibles desperfectos y daños en los mismos o a la salud y derechos de las otras personas usuarias.

cve: BAO-BOB-2011a119

2. Ezarritako prezio publikoak edo tasak garaiz eta zerbitzuak adierazitako moduan ordaintzea.

3. KBko langileen bitartez ematen diren arau eta aginduak onartu eta betetzea.

4. Gainerako erabiltzaileei behar den begirunea edukitzea, gizalegez jokatuz elkarbizitzaren mesedetan.

5. Erabiltzeko eskaria sinatu zuen pertsona, edo bere kasuan, ordezkatzen duen elkartea izango da horretan gauzatzen den ekintzaren erantzulea. Era berean, instalazioak egoera onean eta garbi mantentzeko konpromisoa izango du, bai eta bertan liskarrak ez sortzeko edo KBren higiezina edo edukia kaltetu ahal duten ekintza orokorrak ez gertatzeko konpromisoa ere.

**Erabilera orokorrerako arautegia**

— *Janariak eta edariak kontsumitzea, eta horien ontziak:*

KBren barrualdean ezin da jan, berariaz horretarako baimena ematen den jardueretan eta espresuki baimen hori duten guneetan izan ezik.

Debekatuta dago KBren barrualdean edari alkoholdunak, tabakoa edo legez kanpoko edozein substantzia kontsumitzea.

Saltzeko makinetako produktuak makina horiek dauden eremuan baino ezingo dira kontsumitu, plastikozko ontzietan dagoen ura izan ezik (beste aukera bat: plastikozko ontzietan dauden edariak izan ezik). Erabiltzaileek edari ez alkoholdunak sartzen badituzte, saltzeko makinak dauden eremuan kontsumitu beharko dituzte.

Erabat debekatuta dago KBko instalazioetan beirazko ontziak edo tresnak sartzea, egitekoa den jarduerarekin zuzenean lotuta dauden materialak izan ezik.

— *Animaliak sartzea:*

Debekatuta dago animaliak KBko instalazioetan sartzea, gidari edo segurtasun zereginak betetzen dituztenak salbu.

— *Materialak gordetzea:*

Jarduerak hala eskatzen duelako erabiltzaileek instalazioan materialik utzi behar badute, armairu, kutxatilategi, kaxoi, apal edo horretarako propio jarritako beste lekuetan utzi beharko da, KBren baimena bitarte (bestelako erabiltzaileentzat material toxiko edo arriskutsuak direnean izan ezik).

Derioko Udalak, dena dela, ez du bere gain hartuko KBn gordetako material pribatuen zaintza eta mantentzearen erantzukizunik.

Gordetzeko lekutik kanpo agertzen diren material guztiak zabortzat joko dira, eta ondorioz, KBk bertatik kendu edo deuseztatu ahal izango ditu.

— *Irudiak hartzea:*

KBren barrualdean debekatuta dago edozein dispositibo erabilita erabiltzaileen irudiak hartzea, horretarako KBkoen baimena ez badute.

— *Gauza galduak:*

Gauza galduak Informazio eta Kontrol Zerbitzuan gordeko dira, eta «gauza baliotsu» nahiz «jantziak eta beste» gisa sailkatuko dira.

«Gauza baliotsuak»: 15 egunen buruan jabeak erreklamatu ezean Udaltzaingoaren bulegoetara bidaliko dira, eta une horretatik aurrera haiek izango dira gauzen erantzule legezko jabeen aurrean.

«Jantziak eta beste»: 30 egunez gordeko dira instalazioan bertan eta, jabeak erreklamatu ezean, ongintza edo laguntza erakunderen bati emango zaizkio, edo materialak birziklatzeko lekuetara eramango.

— *Eragindako kalteak:*

Erabiltzaileren edo Udalarekin zerikusia ez duen entitate batek nahita edo utzikeriaz KBren ekipamenduan kalteren bat sortzen badu,

2. Satisfacer en los plazos y de la forma que se especifique para cada servicio los precios públicos o tasas establecidos.

3. Acatar y cumplir cuantas indicaciones e instrucciones dicten o expliciten el personal de la K.B.

4. Guardar el debido respeto a las demás personas usuarias, observando un comportamiento adecuado para la buena convivencia.

5. La persona que firmó la solicitud de utilización, o en su caso, la Entidad a la que representa se responsabiliza de la actividad que se realiza en el mismo y se compromete a mantenerlo en perfecto estado de conservación y limpieza de sus instalaciones, así como de que no ocurran altercados o en general acciones que puedan perjudicar al inmueble y contenido de la K.B.

**Normativa de uso general**

— *Consumo de alimentos, bebidas y a sus envases:*

No está permitido comer en el interior de la K.B., salvo en aquellas actividades en las que se autorice expresamente y exclusivamente en la ubicación en que se indique.

Se prohíbe el consumo de bebidas alcohólicas, tabaco y cualquier sustancia ilegal en el interior de la K.B..

Los productos disponibles en las máquinas expendedoras sólo podrán ser consumidos en las zonas ocupadas por dichas maquinas, a excepción del agua embotellada en recipientes de plástico (otra posibilidad: a excepción de las bebidas embotelladas). En el caso de que las personas usuarias introdujeran bebidas no alcohólicas en la K.B. deberán consumirlas en las zonas de las maquinas expendedoras.

Se prohíbe la introducción de envases o utensilios de vidrio en la K.B., excepto cuando se trate de materiales directamente ligados a la actividad que se vaya a desarrollar.

— *Acceso de animales:*

Se prohíbe el acceso a los animales al interior de la K.B., salvo a aquellos que realicen tareas de guiado o de seguridad.

— *Almacenaje de material:*

Cuando la actividad a realizar requiera el almacenamiento de material propio de las personas usuarias en el centro, este material deberá guardarse en los armarios, taquillas, cajones, baldas o lugares especificados para ello, (a excepción de materiales tóxicos o peligrosos para el resto de personas usuarias), previa autorización de la K.B..

Asimismo el Ayuntamiento de Derio no se hace responsable en ningún caso de la custodia y conservación de los materiales privados almacenados en la K.B.

Todo material, que aparezca fuera del lugar establecido para su almacenaje se entiende que es basura y puede la K.B. proceder a su retirada o destrucción.

— *Captación de imágenes:*

Se prohíbe la captación de imágenes por cualquier dispositivo de las personas usuarias en el interior de la K.B., salvo autorización previa de la K.B.

— *Objetos perdidos:*

Los objetos perdidos serán recogidos en el servicio de información y atención al cliente y clasificados como «objetos de valor» o como «objetos varios y prendas».

Los «objetos de valor», una vez pasados 15 días desde su hallazgo sin que sean reclamados por la persona propietaria de los mismos, serán enviados a las dependencias de la Policía Municipal, quienes a partir de ese momento asumirán la responsabilidad sobre dichos objetos ante sus dueñas o dueños legítimos.

Los «objetos varios y prendas» permanecerán en la instalación durante 30 días, a partir de los cuales, de no ser reclamados por la persona propietaria de los mismos, serán entregados a entidades benéficas o asistenciales, o depositadas en lugares destinados al reciclaje de materiales.

— *Desperfectos ocasionados:*

El Ayuntamiento reclamará mediante los mecanismos legales a su alcance la reparación de los daños derivada de cualquier des-

cve: BAO-BOB-2011a119

Udalak bere esku dituen lege baliabide guztiak erabiliko ditu kaltea ordain dakion.

Kalte erreklamazioen tramitazioak ez du loturarik izango araudi honetan edo aplikatzekoak diren beste batzuetan xedatutako arauak ez betetzeak eragin ditzakeen beste zigor administratibo batzuekin.

— *KBko materialak, ekipoak eta instalazioak erabiltzea:*

Ez materialen erabilerak, ezta jarduerak berak ere, ez dituzte aldaraziko KBko altzari- edo higiezin-ondasunak.

Debekatuta dago KBk dituen instalazioetatik aparteko beste elementurik jartzea gai honetan eskumena duenari aldez aurretik horren berri eman barik eta hark elementua jartzea baimendu barik. Halaber, elementu horiek jartzeak ez du inoiz eraginik izango areto horretan normalean edo noizean behin egiten diren jardueretan; jarduerak ohiko moduan gauzatzen jarraitu beharko dira.

**Erabilera zehatzetarako arautegia**

*Tailerrak, ikastaroak eta beste prestakuntza jarduera batzuk:*

KBk hainbat gune eta gela ditu tailerrak, ikastaroak eta beste prestakuntza jarduera batzuk garatzeko.

Gune horietako erabiltzaileek honako xedapen zehatz hauek bete beharko dituzte, betebehar orokorren idatz-zatian zehaztutakoez gain:

1. Jarduerari esleitutako gunean ordena eta garbiketa mantendu beharko dute, erabili ostean beste batzuek ere erabili ahal izateko.

2. Materialak: ikastaroa egokiro emateko beharrezkoak diren material komunak baino ez dira eskaintzen ikastaroetan. Partaide bakoitzak beharrezkoak dituen material indibidualak ekarri beharko ditu.

3. KBko langileei geletan antzemandako eta ekintzaren garapen egokia oztopatzen duten irregulartasunak, narrioak, apurtzeak edo hutsuneak jakinarazi beharko dizkiete.

4. KBrenak edo erabiltzaileek ekarritako materialak, ekipoak eta altzariak erabiltzean ezin izango da ekintza garatzeko momentuan KBren altzari- edo higiezin-ondasunen egoera aldarazi.

5. Ekintza/tailerra amaitutakoan, KBk eskubidea izango du, egoki iritzitako denbora-tarte baten ostean, erabiltzaileek jaso ez dituzten material, lan eta bestelakoak zaborretara botatzeko.

6. Ikastaro/tailerra egiteko material eta gaiak ezin izango dira ekipamenduetan pilatu ekintzarekin hasi baino lehen. Era berean ezin izango dira urte batetik bestera erabiltzeko gorde.

7. Ekintzaren ezaugarriengatik hondakin arriskutsu, toxiko, suharberak sortzen badira edo osasunerako kaltegarriak badira, erabiltzen diren egun berean eraman beharko dira azpiegituratik erabiltzailearen kontura.

*Erakusketak:*

KBk hainbat gune ditu erakusketak edo arte-adierazpenak aurkezteko. Espazioa emateko, erakusketaren ezaugarriak hartuko dira kontuan eta KBk eskariari uko egin ahal izango dio, baldin eta uste badu ezin dela egin erakusketak eskatzen dituen baldintza teknikoetan edo erakusketak higiezinari kalteren bat sortzen diola bai instalazioari dagokionez, bai erakusketari berari dagokionez.

Erakusketetarako gunea udalerriko edozein erabiltzailek, entitate publikok edo pribatuk eskatu ahal izango du, bai eta udalerrikoak ez diren erabiltzailek edo egoitza udalerrian ez duten erakunde eta entitate publiko edo pribatuk. Erakusketetarako datek bat egiten badute, udalerriko biztanleek edo elkarteek sustatutakoek izango dute lehentasuna, eta berdintasun kasuetan, elkarte publikoek pribatuen aurretik izango dute lehentasuna. Gainontzeko kasuetan, eskarien erregistro sarrerako hurrenkera errespetatuko da.

Herritar edo elkarte erabiltzaileek honako xedapen zehatz hauek bete beharko dituzte, betebehar orokorren idatz-zatian zehaztutakoez gain:

perfecto que una persona usuaria o entidad ajena al Ayuntamiento ocasione en el equipamiento de la K.B. de modo intencionado o por negligencia.

La tramitación de dichas reclamaciones de daños será independiente de las posibles sanciones administrativas que pudiera corresponder por incumplimiento de las normas contempladas en este Reglamento u otras que fueran de aplicación.

— *Uso de materiales, equipos e instalaciones de la K.B.:*

El uso de materiales o la actividad en sí, no podrán suponer alteración de los bienes muebles o inmuebles de la K.B..

Se prohíbe la instalación de cualquier otro elemento ajeno a las instalaciones que posea la K.B. sin previa notificación y aprobación de la misma por la autoridad competente. Asimismo, dicha instalación nunca podrá incidir sobre el normal desarrollo de las actividades que se realicen habitual o puntualmente en el espacio al cual se destine.

**Normativa de uso específico**

*Talleres, cursos y otras actividades formativas:*

La K.B. tiene asignados diferentes espacios y salas para el desarrollo de talleres, cursos y otras actividades formativas.

Las personas usuarias de estos espacios deberán de cumplir las siguientes disposiciones especificas además de las contenidas en el apartado de obligaciones generales.

1. Respetar el orden y limpieza del espacio asignado a la actividad, de tal forma que después de su uso pueda ser utilizado por otras personas usuarias.

2. Materiales: cada curso incluye únicamente los materiales de uso común necesarios para la correcta impartición del curso. Cada persona participante deberá aportar los materiales de uso individual que considere necesarios para su uso particular.

3. Informar al personal de la K.B. de cuantas anomalías y desperfectos, roturas o deficiencias encontradas en las salas puedan dificultar o entorpecer el desarrollo adecuado de la actividad.

4. El uso de los materiales, equipos, mobiliario de la K.B. o aportados por las personas usuarias no podrán suponer alteración del estado que presenten los bienes muebles o inmuebles de la K.B. en el momento de realizar la actividad.

5. Una vez terminada la actividad/taller, K.B. se guarda el derecho de poder tirar a la basura todos aquellos materiales trabajos etc. propiedad de los/as usuarios/as donde tras un plazo estimado de tiempo, no han pasado a realizar la retirada de los mismos.

6. Los materiales, y elementos para la realización del curso taller, no se podrán almacenar en el equipamientos antes de comenzar la actividad, ni guardarse de un año para otro en el mismo.

7. En el caso de que por la propias características de la actividad se generen residuos peligrosos, tóxicos, inflamables o que puedan ser un peligro para la salud, deberán ser retirados en el mismo día de la infraestructura a cargo de la persona usuaria.

*Exposiciones:*

La K.B. cuenta con diferentes espacios para la realización de exposiciones o muestras artísticas. La asignación del espacio dependerá de las características de la exposición pudiéndose denegar la solicitud si la K.B. considera que no es posible realizarla con la calidad técnica que se pueda requerir o se estipule que puedan causar un perjuicio al edificio o a cualquiera de sus elementos, tanto para su instalación como durante la exposición.

Podrán solicitar el uso del espacio expositivo cualquier persona usuaria o entidad pública o privada del municipio, así como por personas no residentes en el municipio o por asociaciones y entidades públicas o privadas que no tengan sede en el municipio. En caso de que sean coincidentes las fechas de las exposiciones, tendrán preferencia las promovidas por personas o asociaciones del municipio y, en caso de igualdad, las entidades públicas sobre las privadas, respetándose en otro caso el orden de entrada en el registro de las solicitudes.

Las personas o entidades solicitantes deberán de cumplir y asumir las siguientes obligaciones específicas además de las contenidas en el apartado de obligaciones generales.

cve: BAO-BOB-2011a119

1. Erakusketetarako gunea erreserbatu nahi dutenek KBn eskaria aurkeztu beharko dute eta horretan eskatzailearen identifikazio-datuez gain, ordezkatzen duen erakunde edo entitatearen datuak ere zehaztu beharko dituzte, beharrezkoa bada. Eskariarekin batera, erakusketaren izaera azaltzen duen memoria ere eman beharko dute. Gainera, erakusketa nola jarriko den, zenbatek zainduko duten ikusgai dagoen bitartean eta bestelakoak ere zehaztu beharko dira.

2. Erakusketaren lekualdaketa egin eta erakusketa jarri zein kendu beharko dute.

3. KBk zehaztutako ordutegian erakusketa zaindu beharko dute.

4. Udalak eskaria eman ostean, erakusketako arduradunak egoki iritzitako segurtasun-neurriak kontratatuko ditu bere kontura. Alor horren inguruan sor daitekeen edozein gertakari erakusketako arduradunak bere gain hartu beharko du eta KBk ez du inolako kalte-ordainik ordaindu behar izango kalte, lapurreta, plagio edo autorearen eskubideak urratzeagatik.

5. Egoki iritzitako publizitate bitartekoak erabiliko ditu, KBk publizitatearen diseinua eta edukia onetsi ostean.

KBk, berriz, honako hauek bete beharko ditu:

1. Espazioa doan utzi beharko du, erabiltzaileak edo erakundeak erakusketa egin dezan.

2. Hala onetsiz gero, katalogoa edo txartela eta egoki iruditzen zaizkion bestelako materialak egingo ditu. Horietan guztietan KBren logotipoa agertuko da.

Hala ere, erakusketako arduradunak berariaz eskatuz gero, KBk aukera eman ahal izango dio publizitatea bere kontura egin dezan. Halakoetan, erakusketako arduradunak erakusketari buruzko katalogoa ere argitaratu ahal izango du. Nolanahi ere, erakusketaren arduradunak KBri jakinarazi beharko dio katalogoa argitaratu aurretik. Hala eginez gero, adierazten zaizkion maketa eta formatua errespetatu beharko ditu.

KBk erakusketaren berri emango du, xede horretarako zehaztuta dituen komunikabideetan.

**Izen-emateak, eta espazioa erreserbatu eta alokatzea**

*Izen-emateak:*

Eskaintzen den jarduera bakoitzerako, onetsitako prezio publikoak edo tasak kontuan hartuz, KBk alderdi hauek zehaztuko ditu: kuotak eta ordaintzeko modua, zein pertsona edo talderentzat den, zein epe, egun eta ordutan izango den, parte hartzeko baldintzak, lekua, gehienezko eta gutxieneko izen-emateak, izena emateko epeak eta modua.

Informazio hori eskura egongo da behar besteko denboraz. Horretarako, egoki iritzitako baliabideak eta modua erabiliko dira.

Izen-ematea ez da behin betikotzat hartuko dagokiona ordaindu eta kasu bakoitzean eskatzen diren agiriak aurkeztu arte.

Izen-ematea pertsonala da, eta ezin izango zaio beste pertsona bati aldatu.

Eskaera eskaintza baino handiagoa bada, ahal den neurrian, jardueran parte hartzeko aukera-berdintasuna bermatuko duten sistemak ezarriko dira.

*Erreserbatu eta alokatzea:*

KBk ezarriko ditu erreserbatu eta alokatu ahal diren espazioetarako tasak edo prezio publikoak, bai eta salbuespenek ere. Espazio horiek erabili ahal izango dira, baldin eta hutsik badaude eta egin nahi den jarduerarako baldintzak betetzen badituzte.

KB erabiltzeko baimena Derioko Udalak eta KBk antolatutako edo baimendutako ekintzen menpe emango da. Horien ondorioz, aurretik emandako baimenak gerora ukatu edo orduz aldatu behar baldin badira ere, ez da erreklamatzeko eskubiderik izango.

Eskaria ez da behin betikotzat hartuko, hala balegokio, dagokiona ordaindu eta kasu bakoitzean eskatzen diren agiriak aurkeztu

1. Los interesados en la reserva de espacio expositivo deberán formular la correspondiente solicitud ante la K.B. en la que deberá constar además de los datos identificativos del solicitante, los de la asociación o entidad a la que represente, en su caso. A la solicitud deberá acompañar una memoria explicativa del carácter de la exposición, la forma en la que se realizara la instalación de la misma, y persona o personas que responderá de su guarda y custodia de las obras durante las fechas, etc.

2. El traslado y montaje y desmontaje de la exposición.

3. Vigilancia de la exposición en el horario estipulado por la K.B.

4. El expositor, previa autorización del Ayuntamiento, podrá adoptar a su cargo las medidas de seguridad que estime oportunas. Cualquier incidencia que pudiera surgir en este aspecto será asumida totalmente por el expositor, sin que la K.B. tenga que abonar ningún tipo de indemnización por daños o perjuicios, robos, plagios o vulneración de los derechos de autor.

5. Los medios publicitarios que estime oportunos previa aprobación por parte de la K.B. de su diseño y contenido.

La K.B. por su parte se compromete a:

1. La cesión gratuita del espacio, con la finalidad de que la persona o entidad exponga su obra.

2. La confección, si así se aprueba, del catálogo o tarjeta y cualquier otro material publicitario que estime oportuno, en que figurará el logotipo de la K.B.

Puede darse también la posibilidad de que en caso de que así lo solicite expresamente el expositor la K.B. dejará vía libre a éste para que él mismo lo haga por su cuenta y a su cargo, pudiendo éste editar incluso un catálogo de la obra expuesta. De cualquier manera, el expositor deberá dar previa cuenta a la K.B. y se atenderá, si así se hace, a las características, maqueta y formato que se le indique.

La K.B. anunciara la exposición en los medios publicitarios que a tal fin tengas estipulados.

**Inscripciones, reserva y alquiler de espacios**

*Inscripciones:*

La K.B. establecerá para cada una de las actividades ofertadas y de acuerdo a los precios públicos o tasas establecidas, la cuota y forma de pago, la persona y/o colectivo destinatario, los periodos en los que se va a realizar, los días, los horarios, las condiciones de acceso, el lugar donde se desarrollará, el número máximo y minino de inscripciones, los plazos de inscripción y la forma de realizar la misma.

Esta información estará disponible con la antelación necesaria en los medios y forma que se considere oportuno.

La inscripción se entiende como definitiva cuando se ha realizado el pago y la presentación de la documentación que en cada caso se establezca.

La inscripción es personal e intransferible.

En caso de que se produzca una mayor demanda de la ofertada, se establecerán los sistemas que garanticen en la medida de lo posible la igualdad de oportunidades para acceder a la actividad.

*Reserva y alquiler:*

La K.B. establecerá las tasas o precios públicos, así como las exenciones para los espacios que son objeto de reserva y alquiler, y se podrán utilizar siempre que estén libres y cumplan las condiciones para realizar la actividad concreta para la que se solicita.

La concesión de uso de la K.B. quedará supeditada a los actos organizados o autorizados por el Ayuntamiento de Derio y la K.B., no habiendo lugar a reclamaciones cuando por dicha circunstancia haya de suspenderse o variarse el horario de cesión anteriormente autorizado.

Las solicitudes se entienden como definitivas cuando se ha realizado el pago, si procede, y la presentación de la documenta-

cve: BAO-BOB-2011a119

arte. Eskarian zehaztu beharko da KBk eskura jarri beharko dituen baliabideak behar dira ala ez. KBk eskubidea izango du horiek jartzeko ala ez jartzeko.

Izen-ematea pertsonala da, eta ezin izango zaio beste pertsona bati aldatu.

Zenbait erreserba eta alokairutan KBk baldintza bereziak ezarri ahalko ditu, araudi honetan xedatutakoa bete dadin; halaber, organo eskudunen bitartez, espazioak araudi honetan zehaztutakoaz bestelako baldintzetan erabiltzeko baimen berezia eman dezake.

Erreserbatzeko edo alokatzeko eskaria sinatu eta KBko espazioa erabiltzen ari dena, edo bere kasuan, ordezkatzen duen erakundea arduratuko da bertan egiten den jardueraz. Era berean, instalazioak egoera onean eta garbi mantentzeko konpromisoa izango du, bai eta araudi honetan xedatutakoa betetzeko ere.

*Erakundeentzako aretoak:*

KBk areto partekatuak erabiltzeko aukera eman diezaieke Derioko gizarte eta kultura elkarteei. Areto horiek denbora epe mugatu baterako eta hitzarmen bidez esleituko dira.

**Zehapen-araubidea**

Erabiltzaileek aurrera eramaten dituzten araudi honen aurkako gertakari eta jokabideak arau-haustetzat joko dira, eta dagokien zigorra ezarriko zaie. Zehatzeko ahalmena indarrean dagoen araudiari lotuko zaio.

*Arau-hauste oso larriak:*

Arau-hauste oso larritzat joko da pertsonen askatasunaren edo osotasun fisikoaren edo moralaren kontra doazenak, zein arau-hauste larria bi aldiz gutxienez egitea.

*Arau-hauste larriak:*

Honako hauek izango dira arau-hauste larriak:

a) KBren jardun egokia oztopatzea edo bertan emandako zerbitzuren bat erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei erabilera eragoztea.

b) Instalazioak, ekipoak, materialak edo erabiltzaileen nahiz gainerako partaideen gauzak lapurtzea edo haiei kalteak eragitea, baldin eta 300,00 euro edo gehiago balio badute.

c) KB erabiltzen ari diren pertsonei zein bertako langileei fisikoki edo hitzez eraso egitea.

d) KBren jardun egokirako, arduradunek ematen dituzten jarraibideei jaramonik ez egitea behin eta berriro.

e) Araudi honetan jasotako arau orokorrak eta zehatzak behin eta berriro ez betetzea.

f) Arau-hauste arin berberagatik bi alditan baino gehiagotan zigortua izatea.

*Arau-hauste arinak:*

Honako hauek izango dira arau-hauste arinak:

a) KBren jardun egokia nahastea edo bertan emandako zerbitzuren bat erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei erabilera eragoztea.

b) Instalazioak, ekipoak, materialak edo erabiltzaileen nahiz gainerako partaideen gauzak lapurtzea edo haiei kalteak eragitea, baldin eta 300,00 euro balio badute.

c) KBko espazio edo zerbitzuak egoki ez erabiltzea eta baimendutako jarduerez bestelakoak egitea.

d) KBren jardun egokirako, arduradunek ematen dituzten jarraibideei jaramonik ez egitea.

e) Araudi honetan jasotako arau orokorrak eta zehatzak noiz edo noiz ez betetzea.

ción que en cada caso se establezca. En dicha solicitud deberá constar cualquier necesidad de recursos que tenga que poner a disposición la K.B., la cual se reserva su suministro o no.

La inscripción es personal e intransferible.

La K.B. podrá imponer condiciones particulares a determinadas reservas de espacios y alquiler para que cumplan lo establecido en el presente Reglamento así como autorizar excepcionalmente a través de sus órganos competentes, el uso de determinados espacios en condiciones aquí no contempladas.

La persona que firmó la solicitud de reserva o alquiler, o en su caso, la Entidad a la que representa y que esté utilizando el espacio de la K.B., se responsabiliza de la actividad que se realiza en el mismo y se compromete a mantenerlo en perfecto estado de conservación y limpieza de sus instalaciones, así como de lo contemplado en este reglamento.

*Locales para entidades:*

La K.B. podrá determinar la existencia de espacios compartidos para asociaciones socio culturales de Derio. La adjudicación de estos espacios se realizara para un tiempo limitado y mediante convenio.

**Régimen sancionador**

Los hechos y actuaciones que realicen las personas usuarias e impliquen un incumplimiento en lo dispuesto en este Reglamento, serán calificados como infracción de la normativa a la que se impondrá la sanción que corresponda. El ejercicio de la potestad sancionadora se ajustara a la legislación vigente.

*Faltas muy graves:*

Se considerará como una infracción muy grave aquella que con su comisión se atente contra la libertad de las personas, su integridad física o moral, así como la reiteración, al menos en dos ocasiones, en la comisión de una falta grave.

*Faltas graves:*

Serán graves las infracciones siguientes:

a) Impedir u obstruir el uso y normal funcionamiento de la K.B. o de un servicio prestado en los mismos a otra u otras personas con derecho a utilización.

b) Sustraer intencionadamente o causar daños a instalaciones, equipos, materiales u objetos de las personas usuarios como de los demás intervinientes valorados en 300 euros o más.

c) Agredir física o verbalmente a las personas que están haciendo uso de la K.B., así como al personal que trabaja en la misma.

d) No atender reiteradamente a las indicaciones que los responsables establezcan para el buen funcionamiento de la K.B..

e) El incumplimiento reiterado de las normas generales y específicas recogidas en el presente reglamento.

f) Haber sido sancionado en más de dos ocasiones por la misma infracción leve.

*Faltas leves:*

Serán leves las infracciones siguientes:

a) Alterar el uso y normal funcionamiento de la K.B. o de un servicio prestado en los mismos a otra u otras personas con derecho a utilización.

b) Causar daños a instalaciones, equipos, materiales u objetos de las personas usuarios como de los demás intervinientes valorados en menos de 300 euros.

c) Utilizar de forma inadecuada los distintos espacios o servicio de la K.B. y la realización de actividades distintas a las autorizadas.

d) Desatender las indicación que los responsables establezcan para el buen funcionamiento de la K.B..

e) El incumplimiento ocasional de las normas generales y especificas recogidas en el presente reglamento

cve: BAO-BOB-2011a119

*Zuhurtziazko neurriak:*

Zuhurtziazko neurri gisa, arau-hauste larritzat jo daitezkeen jokabideak dituzten erabiltzaileak zentrotik egotzi ahal izango dira, gehienez ere hamabost egunerako zentroko arduradunari horren berri emango zaio.

Eragindakoei entzun eta gero, arduradunak hasiera batean jarritako zuhurtziazko neurria aldatzeko proposatu ahal izango du, dela arintzeko, dela gogortzeko, egoeraren larritasuna kontuan izanik. Nolanahi ere, Udalak izango du beharrezko diren legezko ekintzak bideratzeko eskubidea.

*Zehapenak:*

Arau-hauste oso larrien kasuan 1.501 eta 3.000 euro bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile izateko eskubidea behin betiko galduko da.

Arau-hauste larrien kasuan 751 eta 1.500 euro bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile izateko eskubidea behin-behinean galduko da.

Arau-hauste arinen kasuan 100 eta 750 euro bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile izateko eskubidea behin-behinean galduko da.

*Zehapenen mailakatzea:*

Ezarri beharreko zehapena mailakatzeko honako hauek izango dira kontuan:

— Arau-haustea behin baino gehiagotan egin den.
— Arau-hausleak nahita egin duen.
— Gertakariek gizartean zein eragin duten.
— Kalteen larritasuna eta nolakotasuna.

*Zehapen prozedura:*

Alkatetzari dagokio aurreko paragrafoetan azaldutako zehapenak ezartzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 (n) artikuluan xedatutakoaren arabera.

*Kalteak konpontzea:*

Zigorra ezartzeaz gain, arau-hausleari berak eraldatutako egoera lehengoan uzteko eskatuko zaio, bai eta sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.

Udal jabetzako ondareei kalterik eginez gero, udal zerbitzu teknikoek zehaztutako dute konponketaren zenbatekoa, eta arau-hausleari edo haren ordez erantzun behar duenari jakinaraziko dio, ezartzen den epean ordain dezan.

*Erantzuleak:*

Egile materialak izango dira arau-hausteen zuzeneko erantzuleak, baldin eta adingabeak ez badira edo legezko ezintasunen kausaren batean sartuta ez badaude; horrelakoetan legezko zaintza dutenek erantzungo dute haien ordez.

Arau haustea zenbait pertsonak batera egin badute, guztiek erantzungo dute solidarioki.

Kalteen erantzule solidario izango dira, halaber, beste batzuk egin ditzaketen administrazioko arau-hausteei aurre hartzeko legezko betekizuna duten pertsona fisiko edo juridikoak.

*Adingabeek egindako arau-hausteak:*

Adingabeek egindako arau-hausteen kasuan, zentroko arduraduna gurasoekin edo tutoreekin harremanetan jartzen saiatuko da, prebentziozko erantzunak eta familia barruko baliabideak sustatze aldera. Halaber, adingabeen fiskaltza jakinaren gainean jarriko da.

*Hezkuntza neurriak:*

Auzien ezaugarriak halakorik eskatzen badu, zigortzeko neurriak landu eta ezartzearekin batera, hezkuntza ekimenak abiaraziko dira, arau-hausleei zuzendutako prebentzio programen bitartez.

AZKEN XEDAPENAK

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean araudi hau.

(II-4895)

*Medidas cautelares:*

Se podrá expulsar cautelarmente a las personas usuarias que incurran en conductas que puedan ser merecedoras de la calificación de grave, hasta un máximo de quince días consecutivos, informando de ello a la persona responsable que competa.

Ésta, una vez que ha oído a las personas afectadas, podrá proponer la modificación de la medida cautelar impuesta en un principio, tanto en un sentido como en otro, de acuerdo a la gravedad de la situación, reservándose el Ayuntamiento el derecho de ejercer las acciones legales necesarias.

*Sanciones:*

Las infracciones muy graves serán sancionadas entre 1.501 y 3.000 euros, además de la privación definitiva del derecho de persona usuaria.

Las infracciones graves serán sancionadas entre 751 y 1.500 euros, además de la privación definitiva del derecho de persona usuaria.

Las infracciones leves serán sancionadas entre 100 y 750 euros, además de la privación temporal del derecho de persona usuaria.

*Graduación de las sanciones:*

Para la graduación de la sanción a aplicar se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias:

— La reiteración de infracciones o reincidencia.
— La existencia de intencionalidad del infractor.
— La trascendencia social de los hechos.
— La gravedad y naturaleza de los daños ocasionados.

*Procedimiento sancionador:*

La imposición de las sanciones previstas en los enunciados precedentes corresponderá a la Alcaldía, de conformidad con el artículo 21.1. (n) de la ley 7/1985, de 2 de abril.

*Reparación de daños:*

La imposición de sanciones será compatible con la exigencia al infractor de la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario así como con la indemnización de los daños y perjuicios causados.

Cuando se causen daños en bienes de titularidad municipal, los servicios técnicos municipales determinarán el importe de la reparación, que será comunicado al infractor o a quien deba responder por él para su pago en el plazo que se establezca.

*Personas responsables:*

Serán responsables directos de las infracciones sus autores materiales, excepto en los supuestos en que sean menores de edad o concurran en ellos alguna causa legal de inimputabilidad, en cuyo caso responderán por ellos quienes tengan la custodia legal.

Cuando las actuaciones constitutivas de infracción sean cometidas por varias personas conjuntamente, responderán todas ellas de forma solidaria.

Serán responsables solidarios de los daños las personas físicas o jurídicas sobre las que recaiga el deber legal de prevenir las infracciones administrativas que otros pudieran cometer.

*Infracciones cometidas por menores de edad:*

En el caso de infracciones cometidas por menores, la persona responsable del centro intentará contactar con su padre y su madre, o en su caso, con sus tutores, a fin de promover respuestas preventivas y de promoción de los recursos familiares propios. Asimismo se podrán poner los hechos en conocimiento de la Fiscalía de menores.

*Medidas educativas:*

En la elaboración y puesta en funcionamiento de las medidas sancionadoras se establecerán paralelamente acciones educativas mediante programas preventivos dirigidos a quienes cometan infracciones cuando la coyuntura de los conflictos así lo requiera.

DISPOSICIONES FINALES

El presente reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

(II-4895)

cve: BAO-BOB-2011a119